

## **KALITATEAREN BARNE-BERME SISTEMAREN EZARPENAREN ZIURTATZE- TXOSTENA**

## KALITATEAREN BARNE-BERMEAREN SISTEMAREN EZARPENAREN ZIURTATZE-TXOSTENA

EBALUATUTAKO ZENTRUAREN DATUAK	
Unibertsitatea	Mondragon Unibertsitatea
Zentrua	Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Norainokoa	Unibertsitate titulazio ofizialak

## KALITATEAREN BARNE-BERMEAREN SISTEMAREN EZARPENAREN BALORAZIO OROKORRA

Agentziaren ad hoc Batzordeak, adierazitako zentroaren Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren ziurtapen-espedientea osatzen duen dokumentazioa aztertu ondoren, honako balioespen orokor hau egin du:

### ALDEKOA

## BALORAZIO OROKORRAREN JUSTIFIKAZIOA

Txosten hau egiteko, AUDIT Batzordeak, zeina honako hauek osatzen duten:

- Emilio Diez de Castro (Batzordeburua)
- Javier Monforte Serrano (Batzordekidea)
- José Luis Casillas Sánchez (Batzordekidea)
- María del Carmen Navarro de la Villa (Batzordekidea)
- Aitor Marañon Loidi (Batzordekide ikaslea)
- Eva Fernández de Labastida Amurrio (Idazkaria)

zehatz-mehatz jarraitu dio Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema ezartzeko Unibasq-en webgunean eskuragarri dagoen Ziurtagiri Ereduaren Gidan proposatutako metodologiari. Auditoria-txostenaz gain aurkeztutako dokumentazioari buruzko iritziak ezagutarazteko, Batzordea 2014ko azaroaren 28an bildu zen. Prozesuaren zuzendaritzaren azken arduraduna presidentea izan bada ere, zereginak kideen artean egin dira, eta parte-hartze aktiboa izan dute batzordekide guztiek. Gainera, Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren ziurtapenari buruzko txosten honen ondorioa eta edukiak adostu dira. Txosten hau idazteko, eskuragarri zegoen dokumentazioari jarraitu zaio, idazlariak planteatutako gaietara mugatu dira, eta beharrezkotzat hartu den informazio argigarri guztia gaineratu da. Ez-adostasunak, ahuleziak eta iradokitako hobetzeko proposamenak AUDIT Programaren helburuekin bat datoz.

Ebaluazio Batzordeak balioetsi egin du unibertsitate-prestakuntzaren Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema AUDIT programaren esparruan ezartzeko egindako ahalegina.

## INDARGUNEAK

Behin ebaluatuta, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen KBBSk honako indarguneak ditu Ebaluazio batzordearen iritziz:

1. Kalitatearen kultura ondo ezarrita dago zentroan. KBBSren bihotzaren inguruan kudeaketa prozesuka integraziorako eta hobekuntzarako nabaritzen da. KBBSren ezarpena jarraitzeko aukeratutako sistematikak helburuak betetzea bermatzen du.
2. Aplikazio informatikoak KBBSren jarraipena errazten du, sistemaren monitorizaziorako aukera emanez.
3. Bere izaera juridikoa dela eta, interes taldeek HUHEZiko erabaki-organo nagusietan hartze dute parte, bereziki, Kontseilu Errektorean. Partaidetza honek proposamenak bideratzeko, kontuak emateko eta hobekuntzan parte hartzeko aukera ezin hobea ematen die. Zentzu honetan, aipagarria da ere interes talde ezberdinen inplikazio maila, auditoretza prozesuan egindako elkarrizketetan ikusi denez.
4. Interes taldeei zentroaren eskaintza eta emaitzei buruzko informazioa helarazteko bide ezberdinak erabiltzen ditu HUHEZik. Bide hauen eraginkortasuna neurtzen da eta hobekuntza ekintzak martxan jarri dituzte. Proposamenak egin ditzaten eta informazioa banatzeko interes talde ezberdinekin bilera sistema indartsu eta hedatua diseinatu eta ezarri du HUHEZik: Ikasleen Biltzarra, Jarraipen Taldeak, etab. Bilera sistema honen bitartez irakasleek eta ikasleek parte hartzeko eta hobekuntzan inplikaturik egoteko aukera dute.
5. Asebetetze inkesten erabilpenak (materiei buruzkoa, irakasleriarena kalitate sistemaren emaitzei buruzko informazioa jasotzeko eta hobekuntzarako mekanismoak eskaintzen dizkio HUHEZiri.

## AHULGUNEAK ETA HOBEKUNTZA AUKERAK

Auditoria-txostenean, hobetzeko hainbat aukera detektatu ziren, eta jarraipen berezia egin beharko zaie sistemaren etorkizuneko berrikuspenetan eta Zentroaren barneko jarraipen-txostenetan.



Stua.: Juan Andrés Legarreta  
Unibasqeko zuzendaria